

Goi-mailako joskintzako tekniken ikastaroen egitaraua

2023ko egutegia

B

Cristóbal Balenciaga Museoak Cristóbal Balenciaga jostunaren ondarea kontserbatzea, ikertzea eta zabaltzea du xede eta ardatz. Hori dela-eta, museoak Balenciagaren lanarekin lotutako ezagutza eta prozedura teknikoak transmititzeko bideak aztertzen dihardu duela zenbait urtetik hona. Hala, hezkuntza-programa bat sustatzen du, zenbait jarduera-ildotan oinarritua, bi helburu nagusirekin: batetik, getariar jostunaren lanaren alderdi immaterialaren garrantzia azpimarratzea, eta, bestetik, ezagutza hori modaren profesionalen belaunaldi berrien esku jartzea.

Ikastaro horiek, trinkoak eta praktikoak, museoan bertan egiten dira, eta Balenciagaren unibertsoan erabat murgiltzeko aukera ematen diete parte-hartzaileei. Eta, tresna digitalek online-prestakuntzarako eskaintzen dituzten formula berriak.

Programak hiru ibilbide planteatzen ditu: jantzigintzako joskintzako teknikak, fantasiako joskintza eta brodatua. Eta maila desberdinak, proposatutako gaitasun teknikoak pixkanaka eskuratzeko aukera izateko. Guztira, 200 bat orduko dedikazioarekin.

Ikastaroen egitaraua urtero eskaintzen da, ikasturte akademikoarekin batera. Horrela, norberaren interesen, denboraren eta aukeren arabera egokitutako ibilbideak presta daitezke.

JOSKINTZA

Hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua

Eguneko jantziak (jaka-trajeak, batez ere) egiteko teknikak. Arreta berezia jarriko da artilezko ehunen tratamenduan eta papar-hegalak, lepoak, botoi-zuloak, poltsikoak eta mahukak eskuz egiteko zereginetan.

FANTASIA

Hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua

Eguneko jantziak (koktel-jantziak eta ezkongai-jantziak) egiteko teknikak. Arreta berezia jarriko da material jakin batzuetan (zeta, tafeta, parpaila), barnealdeko egituretan (kortseleteak) eta bestelako teknika batzuetan (izurrak, organtzak, guatinak eta itxigailuak).

BRODATZEA

Inplementazio berria. Hasierako maila

Goi-mailako joskintzako teknika espezializatuak, Lunéville metodoaren bidez eskuz brodatzen ikasteko. Programa honek jarraipena izango du hurrengo urteetan, eduki eta maila berriekin.

JOSKINTZA	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen maila	Irailak 15-17	2023ko ekaina	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila	Urtarrilak 30 Otsailak 19	2022ko abendua	32 ordu	Online
3. Maila aurreratua	Uztailak 3-7	2023ko apirila	35 ordu	Presentziala
FANTASIA	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen maila	Urriak 6-8	2023ko ekaina	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila	Otsailak 27 Martxoak 19	2022ko abendua	32 ordu	Online
3. Maila aurreratua	Uztailak 17-21	2023ko apirila	35 ordu	Presentziala
BRODATZEA	Datak	Izen-ematea	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen maila	Maiatzak 18-21	2023ko urtarrila	28 ordu	Presentziala

Javier Martín	Javier Martín museoko ohiko kolaboratzailea arituko da joskintza-ikastaro hauetan irakasle. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991n, Goi Mailako Moda Diseinatzaile gisa, eta bere prestakuntza-urteetan Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen, EISA Madrid etxeko langileak eta Felisa Irigoyen tailerreko buru izandakoaren lehen jostunak. Haiengandik ikasi zituen Cristóbal Balenciagaren joskintzako eta bolumenak eraikitzeke teknika espezifikoak.
---------------	--

Elisabeth Gasbarre	Elisabeth Gasbarre, Parisko École Lesagen ikasia da, eta Cécile Henri Atelier lantegian aritua da, Dior, Chanel eta Azzaro moda-etxeen bildumetarako sorkuntzak egiten. Gainera, hainbat herrialdeetako diseinatzaile eta moda-enprekin kolaboratu du: Hermès, Chafor, Alexis Mabille, Impasse 13, Didit Hediprasetyo eta Francesca Fossati. Irakasle gisa, eskolak ematen ditu Lyongo bere jostundegian, Frantzia, nahiz mundu osoko moda-zentroetan.
--------------------	--

Museoak beretzat gordetzen du eskainitako ikastaroen saioak egunez aldatzeko eskubidea, baita, ezinbestekoa izanez gero, programa bera osorik edo zati batean bertan behera uztekoa ere.

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

